

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

Zinez zail gertatzen zait BAT-26 honen aurkezpen laburra egitea.

Xabier Erize lankidearen artikulua hasteko (iazko ekainaren 2an Tesiaren aurkezpenerako laburtzapena, funtsean), oso mamitsua da. Eta gisa da horrela izatea. «Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa: 1863-1936» izeneko lanak ia-ia 600 orrialde baititu.

Autoreak azpimarratu duenez, eta euskaltzaleezagun batzuen lanak ezaguturik, Erizek «euskararen bizitza» historikoa hartu nahi izan du ikergaitzat; eta ez, hitz batez, «euskararen heriotza». Eta eskubide osoa du horretara jokatzeko, are gure txaloe ere bai.

Baina, izan, euskara betidanik horrelako zerbait izan da. Eta hemen Mitxelenaren hitzak gogoraz ditzakegu: ezagutzen dugunez geroztik, «el euskera es una lengua en regresión». Eta beraz zail gertatzen da euskararen historiak (azkeneko urte hauetan gertatu dena salbu), halako kutsu nekrologikorik ez izatea.

Egia da euskararen historia, Nafarroan bereziki, euskararen atzerakadaren kronika hitsa dela.

«Euskararen historia euskaratik bertatik egin» nahi duela dinosku ikertailak; euskal komunitatetik beretik, zehazkiago. Honetan eta beste

xehetasun askotan, Tesiaren aintzin solasean deplauki aitortzen duenez, «Txepetx»en oihartzuna somatzen dugularik.

Ordezkapenaren talka, bi giza-multzoren artean gertatzen ari da: «euskal komunitatea» dugu alde batean, eta «erdal komunitatea» bestean.

Baina hemengo errealitatea bertatik eta barrutik ezagutzen dugularik, halako kutsu bitxia hartzen diogu sailketa izaribakar berdintzaile horri Jon Juaristi eta Mikel Azurmendi, adibidez, euskal komunitateko kide dira: euskaldunak izateaz gain, euskal idazle ezagunak ere izan baitira (gero tartufokerietaraino damutu badira ere).

Hots, gaur euskarak jasaten duen eraso gupidagabea, nekez para daitezke bi idazle horiek «euskal komunitatea»ren alderdian. Bereiz-marra ez baitago hor. Azterketa ultra-linguistiko eta aseptiko-apolitikorik egite-rik ez dago.

Badirudi, bestalde, «Txepetx»en irakurketa guztiak ez direla beti oso xuxenak izaten: «Pretender devolver sus derechos —esana du J.M. Sanchez Carrión— a la lengua expoliada partiendo de la declaración formal de que su protección no supondrá en ningún momento una amenaza o un peligro para la vigencia de los privilegios de la otra, es una falsificación a la que no podemos prestarnos en nuestra condición de seres racionales» (ik. «Un futuro para nuestro pasado», 172).

Eta horrek ondorio politikoak ditu.

«Erdal komunitatea» delakoak baditu bere alde (bere zerbitzutan, preseski) bi Estatu, bi Armada, bi media-sistema oso (Ameriketako eta Afrikako koloni-ohietakoak oraingoaz alde batera uzten dugularik), ideologia anizkun bat (kolore desberdinetako «Pentsamendu Bakarra» delakoaren adar huts gaur egun), bi irakaskuntza egitura oso, eta abar. Eta zanpaketa aurrera eramateko lanabesak ere bai, milioiak eta bilioiak barne.

Euskal komunitateak ez du esparru propiorik. Euskal komunitateak baimena eta eskubide apurrak eskatu behar dizkio umilki erdal komunitateari.

Hain zuzen ere, egun hauetantxe gertatu dira euskaraz epaiketak gauzatzeko egindako saioen eskandaloak. Eta egun hauetantxe ere kalera da Joan Mari Torrealdai soziologoaren liburu berria: «El libro Negro del Euskera» (ed. Ttarttalo). Eta aski da, adibidez, 53. orrialdean datorren Dekretua berrirakurtzea, «erdal komunitate» koloregabe, neutro eta abstraktu horrek, kolore urdina eta pisu gaitza har ditzan.

«Erdal komunitateak izugarrizko presioa egiten duela» irakurtzen dugu. Baina presio hori zeren bidez, nongo diruz, eta noren aginduz egiten den ez zaigu garbiki adierazten.

Euskal komunitatea, esate baterako, ez da arrazoin izkutu eta ezezagunengatik «puskatzen»; Madrilek eta Parisek, oso jakinaren gainean daudelarik, Euskal Herria suntsitzekotan (eta honek oinarri duen euskal ko-

munitate hori des-euskalduntzekotan), betidanik daramaten politika etnozida zorrotzaren ondorio gisa baizik.

Hizkuntz inperialismoa gauza ezaguna da. Eta Espainiako eta Frantziako estatuek badakite honen berri. Erudizioaren hostoek eta Tesi-Tribunaleko batzuen iritziekiko errespetuak, ez ligukete oihana izkatatu behar.

«Euskalerria irratiko» lankidea den Reyes Ilintxetak ere, nafartarra izanik, Nafarroa hautatu du ikergai. Eta Erizeren liburua aipatzen digu, besteak beste.

J.M. Jimeno Jurioren «Historia del euskara. Navarra» liburua ere bai. Bidezkoa da: Nafarroaren pertzepzioa bera aldatu baitu artasonarrak etengabeko bere ikerlan nekagaitzaren ondorioz.

Irakurgarria Zuri Urmenetaren idazlana. Loraldi ederra Nafarroan gertatzen ari dena. Lehen ezer gutxi bagenekien ere, orain (eta hiru liburu funtsezko hauen ondorioz hein handi batean), askoz gehiago jakingo dugu euskararen historiaz.

«Hizkuntzaren aurkako agiririk ez dut behin ere ikusi» dinosku Urmene-tak. Nik neuk bederen lanak ditut hori sinesten. Baina erantzuna, jakina, Jimeno Juriok, J.M. Torrealdaik eta bestek eman behar lukete ondoko as-totan euskararen onetan (eta egiaren ohorean ere bai).

Emilio Lopez Adan arabar lapurtartuaren artikulua, berriz («Ipar Euskal Herriko antolaketa eskemaz»), beste mundu batera garamatza. Frantziako gobernuak gaur bertan, eta gure begien aurrean, daraman politika anti-euskaldunaren ulerkuntzara.

Hegoaldeko euskaltzaleok, normalean, ez dugu ongi ezagutzen Iparraldeko egoera. Ez politikoa, ez psikologikoa... eta sozio-linguistikoa ere ez! Oraindik ere Iparraldeko egoera hemengo bano hobea dela uste dutenak ez dira urri.

Ez dute sinisten, hitz batez, euskararen egoera askoz ere larriagoa dela Bidasoaz bestaldean, alde honetan baino. Eta ipartar anai-arrebek askoz ere borroka zailagoa dutela han, guk hemen duguna baino.

Mesede gaitza egingo die horiei artikulua honen irakurketak. Eta leku asko eta askotan izu galanta sortuko.

«Deiadar» elkarte berriaren behar gorria, ordea, garbi agertzen da. Frant-ses gobernu adarra jotzen ari zaie (zaigu, hobeki esanda) lotsagabekeria guztizkoan, eta Euskal Herriko eskualde oso bat galtzeko bezperan dago.

«Euskara —irakur dezakegu— hilzorian dago Iparraldean». Eta gakoa bilatzerakoan Lopez Adanek ez ditu hitz gogorrak baztertzen. Eta «zapalkuntzaz» mintzo da gordinki.

Eta adibide garbi hau eskaintzen: Plangintza egiterakoan 800 irakasle behar zirela aurkitu zen, gero 200 nahikoa izango zirela eman zen aintzako-tzat, eta azkenean... 2 irakasle askitza eman behar! Ez da murrizketa makala!

Ezinezkoa, benetan, L. Adanek emandako datuak oro hitz gutxitara bil-tzea. Irakur, otoi. Horixe da niri bururatzen zaidan guztia.

Iñaki Martínez de Luna Inakideak, berriz (Nekane Jausoro, Kontxesi Be-rrio-Otxoa eta Ibon Idirinekin eskuz esku) lan mardula prestatu digu gi-zarte-sareei buruz. Irakurgai zaila ere bai, egia esan. Baina ongi funtsatua eta anitz iturritako uraz oratua.

Soziograma delakoen berri ematen digute. Moreno, Clyde Mitchell, F. Requena, Aitchison, eta beste hamaikaren lanak laburbilduz, abiapuntu egokia eskaintzen digute gizarte-ikerikuntzan abiatu nahi dukeenaren zer-bitzutari. Oso interesgarria kanpoan mamitzen ari denaren berri euskaraz eta euskaldunen onetan azaltzea.

Baina lankide-ohartxo bat egin behar honetarakoan. Harrokeriarik gabe esan daitekeela (eta esan behar dela ere bai) euskal Soziolinguistikak ere-mu kuantitatiboan lortutako metodologiak (eta behin eta berriz neurketa empirikotan erkatua eta findua), zerbaitxo bederen ekarri duela uste du-gulako.

Eta lau autore euskaldun (are lankide hurbil ere kasuren batean) horien bibliografi zerrenda luzean gure lanen arrastorik ere ez topatzea... minga-rri gertatu zaigu. Bere apalean BAT honetxek ere zerbait erantsi baitu ja-kintza alor honetan.

Euskaraz, hori bai...

Baina nehor ez omen da bere jaioterrian iragarle, eta gu ere ez. Bizi-legea omen!

Bihotz altxagarria, azkenik, eta oso laburki besterik ezin aurkeztua zori-txarrez, Xavier Vila katalanak Santa Coloma de Grameneteko eskolaz kon-datzen diguna. Posible da, irakasten digunez, oso giro erdaldunetan ere, katalana «immersion» eskolen bidez ikasleen mintzabide eskuarra bihur-tzea.

Eta berri hauek oso inportanteak dira guretzat. Hemen ere, eskola ingu-rune horretan bezala, askotan gertatzen baitzaigu euskaldunen kopurua %30 hein horretan egotea.

Mila esker, beraz, Vila jaunari.